

Kirurgia Orokorra eta Aparatu Digestibokoa

Gaitasunetan oinarritutako Prestakuntza Espezializatua Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea

Irakaskuntza-ikuspegia: Zazpi gaitasun-eremutan oinarritutako lanbide-profila



Konpromisoa: Erantzukizun sozialean oinarritutako irakaskuntza-akreditazioa

Erreferentzia: Morán-Barrios J. Un nuevo profesional para una nueva sociedad. Respuestas desde la Educación Médica: la formación basada en competencias. Rev. Asoc. Esp. Neuropsiq. 2013; 33 (118): 385-405.

<http://www.revistaaen.es/index.php/aen/article/view/16614/16454>



Kirurgia Orokorra eta y A.Dko Zerbitzua eta Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Irakaskuntza

Espezializatuko Unitatea.Cruces. Barakaldo. Bizkaia. [CC BY-NC-ND](https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/)



KIRURGIA OROKOR ETA APARATU DIGESTIBOKOAREN GESTIO KLINIKOKO UNITATEA

Kirurgia Orokorreko zerbitzuak prestakuntza integrala eskaintzen du paziente kirurgikoaren arretan. Etengabe garatzen ari den espezialitate bat gara, eta arazo konplexuak dituzten gaixoei soluzioak emateko aurrerapen teknologikoa lantzen dugu hainbat arlotan.

Jarraian zehaztuko dira:

- Kirurgia Orokorreko eta Aparatu Digestiboko Kirurgiako Zerbitzua gara.
- Gurutzetako Unibertsitate Ospitalean gaude.
- Gure irakaskuntza-eskaintzaren oinarria zirujauari prestakuntza integrala ematea da osasuneko profesional gisa, zazpi gaitasun-eremuetan. Irakaskuntza kudeatzeko sistema aitzindari eta berritzailea eskaintzen dugu, ikaskuntza mailakatua eta gainbegiratua emateko. Gure xedea pazientearen segurtasuna hobetzea da, espezialitateari buruzko irakaskuntza moderno eta dinamikoaren bidez.
- Gure egoiliarren errotazio-ibilbidean, Kirurgiaren inguruko espezialitateak ere sartzen dira: Larrialdiak, Erradiodiagnostikoa, Anestesia - Bizkortzea eta Kirurgia Baskularra. Zerbitzuaren barruan arlo desberdinetan egiten dituzte egonaldiak unitate hauetan, dedikazio espezifikoarekin: kirurgia kolorrektala, kirurgia esofagogastrikoa eta bariatrikoa, kirurgia pankreatikoa, kirurgia hepatobilarra eta gibel-transplantea, kirurgia endokrinoa eta KHA. Kanpoko errotazio bat gehitu dugu Valentziako Unibertsitate Ospitale Orokorreko Koloproktologia Unitatean, punta-puntako tekniketan prestatzeko oso interesgarria delako.
- Ikerketa
Gure zerbitzuetan eta gure tutoreen bitartez, kasu kliniko desberdinak eta inpaktu handiko azterlanak aurkezten saiatzen gara kongresuetan eta aldizkari zientifikoetan.

Horretarako, gure hileroko bileretan "Brain Storming" bat egiten dugu egoiliar eta tutore guztiekin, duten garrantziagatik argitaratzeko modukoak izan litezkeen gaiak eta/edo kasuak



aztertzeko. Xede horrekin, tutoreek eta egoiliarrek osatutako hainbat lantalde antolatu ditugu, patologia desberdinak lantzeko eta era horretan argitalpen gehiagotara iritsi ahal izateko. Talde horien bidez, azpimarratzekoa da hainbat prospekzio-proiektu jarri direla martxan, eta baita saio kliniko bat ere.

Gure proiektuaren barruan, azkeneko urteko egoiliarrek lagundu eta bultzatu nahi ditugu azkeneko urte horretan zehar inpaktu handiagoko proiektuak eta saio klinikoak egin ditzaten, hala nahi izanez gero.

Urtean zehar, eta aldez aurretik ezarritako egutegiaren arabera, egoiliarrek inpaktu handiko eta interes zientifiko handiko aldizkarietan argitaratutako kasuak aztertzen dituzte, eta, hala, kasu horiek zerbitzuaren gainerako profesionalen aurrean aurkeztu eta aztertzen dituzte, **saio bibliografiko** gisa.

- Prestakuntzaren ebaluazioa

Azken urte hauetan zehar, hau da gure irakaskuntza-eskaintzaren alderdi bereizienetako bat ospitalearen barruko gainerako irakaskuntzan egiten den ebaluazioari buruz.

Ebaluazioak ezinbestean etengabea eta globala izan behar duela sinetsita, gure egoiliarrek ebaluatzeko hainbat puntu ezarri dira.

- ❖ Hilean behin, egoiliar batek berrikusketa-saio bat prestatu behar du, aldez aurretik hautatutako garrantzi bereziko gai bat lankideei azaltzeko. Horrela, bere gaitasuna eta ezagutza medikoez gain, ahozko aurkezpenak egiteko duen trebetasuna ere ebaluatuko dugu. Gainera, aurkezpen horretan tutoreak galderak egingo dizkie gainerako egoiliarrei ere, arlo zehatz horretan duten ezagutza analizatzeko.



- ❖ Sei hilean behin ebaluazio bat egiten da, urte bakoitzerako ezarritako gai-zerrendari egokitutako kasu kliniko baten bidez, egoiliarren gaitasun diagnostikoak, terapeutikoak, baliabideak optimizatzeak eta erabakiak hartzeak baloratzeko.
- ❖ Espezialitate kirurgikoetan, garrantzi berezia dute gaitasun teknikoek. Horregatik, kanpoko interkomunikatzaile-ebaluatzaile bat ezartzen dugu errotazio bakoitzean, prozesu kirurgiko bateko hainbat elementu tekniko analizatzeko, dagokion urtearen arabera, egoiliarra ezagutu gabe.
- ❖ Azkenik, uste dugu errotazio bakoitzeko azken ebaluazioa ez duela egoiliarrak eskatu behar eta ez zaiola ebaluatzaile bakar bati eskatu behar, subjektibotasun-arazoak gerta litezkeelako eta askotan errotazioa egin eta denbora batera eskatzen delako. Horregatik, errotazio bakoitzaren ondoren “360ºko ebaluazioa” bidaltzen zaie posta elektronikoz hainbat ebaluatzaile, medikuei eta mediku ez direnei, alborapenik izan ez dadin. Garrantzi berezia ematen diegu ebaluazio bakoitzean egiten diren iruzkinei, elementu hori osatzearekin ebaluazioa osa baitezakegu. Denbora errealean jartzen da egoiliarraren karpeta pertsonalean, hark eta bere tutoreak ikusi ahal izan dezaten osatzen denean.

Jarraian zehaztuko dira:

- **Nor gara**
- **Non gaude**
- **Prestakuntza-eskaintza**
- **Prestakuntza-ibilbidea (errotazioak)**
- **Ikerkuntza**
- **Prestakuntzaren ebaluazioa**



Nor gara



Kirurgia Orokorreko eta Digestio Aparatuko Zerbitzuko burua:
Aitor de la Quintana Basarrate doktorea

Egoiliarren tutoreak:

Patricia Sendino dk.

Maria Jose Servide dk.

Christian Pérez dk.



1972an sortutako zerbitzu honek espezialitatearen programa guztiaren prestakuntza eskaintzen du, Espezialitatearen Nazio Batzordeak diseinatutakoaren arabera. 1972. urtetik, espezialistak prestatzeko akreditazioa du eta urtean BI prestakuntza-plaza hartzeko ahalmena.

49 urte hauetan zerbitzuburu izan dira: Carmelo Gil Turner dk., Felipe Vara dk., Jose Félix Legurburu dk., Jose Hernández Calvo dk., Alfredo Echevarría dk., Miguel Ángel Ulacia dk., Luis Fernando de Perdigo, Alberto Colina dk, eta gaur egun, Aitor de la Quintana dk.. Zerbitzuaren garapenean jazotako gertaerarik aipagarrienak hauek dira:

- Gibelesko transplante-kirurgian 1.000 transplantetik gora (1.a 1996-02-01ean)
- Kirurgia laparoskopikoa (1991)
- Kirurgia bariatrikoa (1998)
- TEO hasiera (2010)
- Fast Track inplementatzea (2011)
- 5 unitate espezifiko eratzea (2017)

Hauek dira langileak:

- 1 zerbitzuburu
- 5 atalburu
- 38 mediku adjuntu
- 10 egoiliar

Zerbitzuak atal edo unitate asistentzial hauek ditu:

- 5 unitate espezializatu (Unitate Esofagogastriko-bariatrikoa, Unitate Kolorrektala, Gibelesko Transplante eta Kirurgia Hepatobiliarreko eta Peritoneoko Unitatea, Pankreako Unitatea, Unitate Endokrina eta KHA)
- Ospitalizazioa: 93 ohe, 4. solairuko D eta E ataletan banatuta; eta bertan profesional hauek: 44 erizain, 38 erizaintzako laguntzaile, 6 administrari, 2 erizain kliniko eta ostomiako erizain 2 eta Gloria Arroyo andrea gainbegiralea.
- 5 kanpo-konsulta egunero ospitalean, Unitate desberdinetan banatuta eta Ostomizatuen konsulta eta 5 konsulta Lehen mailako arreta-zentroetan: Areeta, Santurtzi, Portugalete, Ortuella eta Deustu.



- •Proktologia Kabinetea, Uzki-ondesteko patologia era ambulatorioan aztertzeko eta tratatzeko 4. Solairuan kokatuta dago. Uzki-ekografia du, fistulak eta mahai protoogikoa aztertzeko, eta mahai protoogikoa patologia hemorroidalean bandak jartzeko.
- 4 kirofano egunero goizeko txandan, 3 arratsaldeko txandan eta kirurgia txikiko kirofano 1.
- Larrialdietako asistentzia etengabea: 3 adjuntuk eta 2 egoiliarrek osatutako taldea.

Urteko jarduera hemen dago eskuragarri:

[URTEKO MEMORIA EZKERRALDE ENKARTERRI GURUTZETAKO ESI](#)

Guardiako pasea eta solairuko pazienteen eboluzioa egunero 08:15ean.

Saio klinikoak astearte eta ostiraletan.



Non gaude

Kirurgia Orokor eta Ap. Digestiboko Kirurgiako zerbitzua Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko eremu orokorreko 4. solairuan dago (4D / 4E).

Administrazio-idazkaria:



Ana Mª Sanjurjo San Miguel andrea

Telefonoa: +34-94 600 6000 / Luz.: 2269

Faxa: 94 600 6445

Helbide elektronikoa: anamaria.sanjurjosanmiguel@osakidetza.net

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea

Kirurgia Orokorra eta Aparatu Digestibokoa - 4D

Gurutzetako plaza z.g.

48903 Barakaldo, Bizkaia

[Ospitalea Google Maps aplikazioan ikusi](#)





Prestakuntza-eskaintza

Gure antolakuntza eta asistentzia-jarduera zabalari esker, espezialitateko alderdi nagusi guztietan espezialisten prestakuntza eskaini eta bermatu dezakegu.

- a. Koloneko kirurgia onkologikoa
- b. Hesteetako gaixotasun inflamatorioen kirurgia
- c. Kirurgia onkologiko esofagogastrikoa
- d. Kirurgia onkologiko pankreatikoa
- e. Kirurgia bariatrikoa
- f. Kirurgia onkologikoa kirurgia hepatobiliarrean
- g. Kirurgia onkologiko endokrinologikoa
- h. Egoiliarren urteko bilera: Kasu klinikoen aurkezpena
- i. Kirurgia Endokrinoko urteko jardunaldia
- j. Kirurgia Birtualeko eta Oinarrizko Kirurgiako prestakuntza
- k. Kirofano esperimentaleko kirurgia laparoskopikoari buruzko prestakuntza

Horiez gain, dedikazio berezia daukagu patologia zein prozedura konplexu hauetan:

- a. Gibel-transplantea
- b. TEO
- c. Gordailu onkologikoak eta dialisi peritonealeko kateterrak ezartzea

Prestakuntzako egonaldiak eskaintzen dizkiegu beste zentro batzuetako profesionali:

- a. Kirurgia bariatrikoa
- b. Kirurgia endokrinoa
- c. Kirurgia hepatobiliarra eta gibeledu transplantea

Informazio gehiagorako, gure “zerbitzu-zorroa” hemen ikus daiteke: [Ospitalea: “zerbitzuen katalogoa”](#)

Irakaskuntza Batzordeak [ikastaroak \(ikusirik irakaskuntza-jarduerak\)](#) antolatzen ditu espezialitate guztien oinarrizko prestakuntza osatzeko. Ikastaro gehienak nahitaezkoak dira azken titulazioa lortzeko.

Ospitaleak **Saio Orokorrak** burutzen ditu hilero asteazken batean edo bitan, 08:30ean areto nagusian. Saio horiek funtsezkoak dira prestakuntza integrala lortzeko, espezialitatea edozein izanda ere, alde batetik, interes bereziko kasu klinikoei buruz ikasten delako, beste batetik, Ospitalearen, zerbitzuen edo



unitateen funtzionamendua ezagutzeko balio dutelako – bai eta beren arteko erlazioa zein den ere– eta bukatzeko, hainbat batzorderen jardura garrantzitsuaren berri ematen dutelako.

Kirurgia Orokorreko Egoiliarren Prestakuntza-ibilbidea (errotazioak)

	EKA	UZT	ABU	IRAIL	URR	AZA	ABE	URT	OTS	MAR	APR	MAIA
R1A				LARRIALDIAK		KPU						
R1B				LARRIALDIAK		EGB-P						
R2A	TORAXIKOA		KPU		ENDOKRINO - KHA			BIZKORTZE		BASKULAR		
R2B	BASKULAR		EGB-P		BIZKORTZE		TORAX		ENDOKRINO-KHA			
R3A	PANKREA				ENDOKRINOIA			GIBELA				
R3B	GIBELA				PANKREA				ENDOKRINOIA			
R4A	EGB-P											
R4B	EGB-P											
R5A	KPU											
R5B	KPU											

Egoiliarrak kanpo-prestakuntzako aldiak hemengo edo atzerriko zentroetan egin ditzake. Irakaskuntza Batzordeak eta gure zerbitzuak zentro hauetan eskaintzen dute prestakuntza:

- Valentziako Unibertsitate Ospitale Orokorra
- Basurtuko Unibertsitate Ospitalea
- Bruselako Saint Pierre Ospitalea
- Luxenburgoko Ospitalea

Espezialitateko prestakuntza-ikastaro espezifikoak hauek dira:

- Hernia eta abdomeneko paretari buruzko ikastaroa Getafeko Ospitalean.
- Espainiako Zirujauen Elkarteak (AEC) antolatutako ATLS ikastaroa.
- Espainiako Zirujauen Elkarteak (AEC) antolatutako DSTC ikastaroa
- Kirurgia Endokrinoko ikastaroa, GUOko Kirurgia Orokorreko zerbitzuak antolatua.
- E1eko Kirurgia Laparoskopikoko ikastaroa, AECK antolatua.
- Kirurgia Laparoskopikoko ikastaroa, oinarrizkoa eta aurreratua, GUOko Kirurgia Orokorreko zerbitzuak antolatua.
- Kirurgia Birtualeko ikastaroa, GUOko Kirurgia Orokorreko zerbitzuak antolatua.



Ikerkuntza

[BioCruces Ikerkuntza Institutuaren](#) inguruko sostengua du Ospitaleak ikerketarako.

Hauek dira zerbitzuak zuzentzen dituen edo sarean lankidetzan diharduen ikerketa-lerroak:

- a. TISSEL eta TOREGA azterketak Kirurgia Esofagogastrikoan.
- b. Long-Cross azterketa kolon-ondesteko kirurgian.

Gurutzetako Ospitaleko Quiroinnovación Zirujau Orokorren Elkartearen sostengua ere badu Kirurgia Zerbitzuaren barruan prestakuntza emateko eta ikertzeko.

Egoiliarra pixkanaka sartzen da ikerketa-lanetan eta prestakuntzako bigarren urtea bukatzen duenean doktorego-tesia hasi ahal izango du.

Jarduera zientifikoari buruzko informazio xehea urteko Memoria osoan irakur daiteke: [MEMORIA ZIENTIFIKOA](#)



Prestakuntzaren ebaluazioa

Ebaluazioa ikasketaren motorra da eta ikasketa erraztera zuzenduta dago, beraz, indarrak eta ahultasunak antzeman eta hobekuntza planak ezarriko ditu. “Ebaluazio formatiboa” deitutako ebaluazio-mota horretarako, Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleak gaitasunetan oinarrituta dauden zenbait metodo kualitatibo erabiltzen ditu. Behean aipatuko diren metodo horiei esker, informazio zehatz bat iturri anitzetatik lortu eta hainbat ikuspegi izan ditzake (gainbegiralearen ebaluazioa, norberak egindako hausnarketa eta autoebaluazioa). Informazio horrekin, Urteko Ebaluazio Batzordeak txosten bat lantzen du adostasunez, eta bertan, egoiliarren indarrak eta hobetzeko arloak (egongo balira) adierazten dira. Gaitasunetan oinarritutako txosten honek ezinbestean egindako ikastaroen egiaztagiriarekin batera “Egoiliarren Urteko Txostena” osatzen dute. Tutorea prestakuntza-prozesu guztiaren kudeaketaren arduraduna da eta Urteko Txostena emango dio ikasleari.

Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Kirurgia Orokor eta Aparatu Digestiboko Kirurgia Zerbitzuko BAMEek (Barneko Mediku Egoiliarrek) lortu beharreko gaitasunak XXI. mendeko medikuaren zazpi gaitasun-eremuetara egokitzen dira, Ospitaleko irakaskuntza Batzordeak zehaztutakoaren arabera:

1. Balio profesionalak, jarrerak, jokabidea eta etika.
2. Pazientea zaintzea eta trebetasun klinikoak.
3. Ezagutza medikoak / medikuntzaren oinarri zientifikoak.
4. Komunikazioa.
5. Osasun sistemaren testuinguruan oinarritutako praktika (Osasunaren sustatzailea eta Baliabideen Kudeatzailea).
6. Ikaskuntzan eta hobekuntzan oinarritutako praktika (Análisi kritikoa eta ikerketa).
7. Informazioaren erabilera.

Espezialitate honi dagozkion asistentzia eta irakaskuntza eta ikerketako gaitasunak [Kirurgia Orokor eta Aparatu Digestibokoaren Prestakuntza Programan](#) jasotzen dira.

Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko ebaluazio sistema orokorra¹.

¹ Morán-Barrios J, Amutio E, Barbier L, Carrasco A, Gil-Lemus MA, Gómez B, Iriberry M, Padilla L, Rodríguez-Iñigo MA, Saá R, Larrañaga I, Nieto J, Udaondo J y González-Larragán S. Evaluación del residente basada en competencias. El modelo del



Irakaskuntza Batzordeak eta Gaitasunen Ebaluazio Batzordeak ebaluazio-sistema zuzentzen dute. Sistema hori Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea 2008. urtetik garatzen joan den **“Gaitasunetan oinarritutako Prestakuntza Espezializatua”** proiektuaren parte da. **Ebaluazio-metodoak** hauek dira:

- a) Errotazio bakoitzaren Gainbegirale zuzenaren ebaluazioa, Gaitasunetan oinarritutako formulario baten bidez (Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko berezko eredua)
- b) Tutorearekin aldi behingo elkarrizketak (gutxienez urtean bi)
- c) Autoebaluazioa
- d) Urteko Memoria (Egoiliarren Liburuaren baliokidea da) bi alderdi hauek sartzen ditu: jasotako gaitasunen gaineko hausnarketa eta asistentzia-, irakaskuntza- eta ikerketa-jardueren zein lanbidearekin erlazionatutako beste ekintzen kuantifikazioa
- e) Gaitasunetan oinarritutako Tutorearen urteko txostena
- f) Ebaluazio Batzordearen urteko balorazioa
- g) Irakaskuntza Batzordeak antolatutako derrigorrezko ikastaroak egitea
- h) Gaitasunetan oinarritutako urteko banako txostena

Gainera, zerbitzuak ebaluazioak egiten ditu metodo hauekin:

- a. Urte arteko ebaluazio teorikoak
- b. Ebaluazio praktikoa OSATS (Objective structured assessment of technical skill) metodoarekin
- c. 360ºko ebaluazioa

Egoiliarren ebaluazioa jasotako Prestakuntzaren gainean.

1. Urtero, apirilean, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko egoiliar guztiei gogobetetze-inkesta bat bidaltzen die.
2. Bi urtez behin, otsaila eta martxoa bitartean, Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Irakaskuntza Batzordeak gogobetetze-inkesta bat bidaltzen du. Inkesta hau orain dela 20 urte egiten da. Emaizak zerbitzuei eta egoiliarrei jakinarazten zaizkie.